

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Berriro jartzea jendaurrean TMIZren 2020ko errolda eta aldatzea hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2020koak, borondatez ordaintzeko epea

Alkatearen ekainaren 18ko 267/2020 Dekretuaren bidez, hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau onetsi zen:

COVID-19ak eragindako osasun larrialdi egoerak eta birusari aurre egiteko ahaleginak berekin ekarri dute zenbait aparteko neurri gogor hartu beharra, eta horrek gizartearen alderdi zaugarrietako batean, alegia, familietan, kalte ekonomiko handia egin du.

Aiarako Udalak, bere eskumenak betez, lehentasunezko jotzen du talde horri laguntzea eta, horretarako, bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu, egoerak familien ekonomian sortzen dituen albo kalteak arintzeko.

Udalaren jardun eremu horietako bat zergena da, eta helburu horrekin ematen du dekretu hau. Dekretu hau bertan behera uztean, udalak zerga kudeaketa atzeratzen du eta familiei beta ematen die, bizi dituzten zailtasunak, neurri batean, arintzeko bideratu diren laguntzak eskatu eta jasotzeko.

Aparteko eta premiazko neurri hori onuragarria izango da herritar guztientzat eta, batez ere, familia behartsuenentzat.

Ikusirik martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak (COVID-19aren ekonomia eta gizarte eraginari aurre egiteko presako neurriena) zerga alorreko zenbait eperen etendurari buruzko 33. artikuluan xedatutakoa.

Ikusirik ezen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuak, zeinaren bidez gizarte eta ekonomia eremuko presako neurri osagarriak hartzen baitira COVID-19ari aurre egiteko, autonomia erkidegoen eta toki erakundeen zerga alorreko zenbait eperen etendurari buruzko 53. artikuluan xedatzen duela, besteak beste, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritakoa aplikagarria zaiela, toki erakundeez den bezainbatean, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginak (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) gobernatzen dituen jardun, izapide eta prozedurei.

Ikusirik ALHAOren 24. zenbakian, 2020ko otsailaren 28an, argitara eman zela trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda, eta martxoaren 18an jendaurreko aldiaren zegoela.

Ikusirik ezen, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak (COVID-19aren ekonomia eta gizarte eraginari aurre egiteko presako neurriena) 33. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, errege lege-dekretu hori indarrean jarri zenetik 2020ko maiatzaren 30era arteko aldia ez dela zenbatzeko ofizioz hasitako prozeduren gehieneko iraunaldiaren aldetik, baina aldi horretan administrazioak ezinbestekoak diren izapideak bultzatu, agindu eta gauzatu ahal izango dituela.

Ikusirik ekainaren 5eko 55/2020 Errege Dekretua, 2020ko ekainaren 21eko 00:00 ordua arte luzatzen duena martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma egoera, azken horren bidez COVID-19ak sortutako osasun krisialdia kudeatzeko alarma egoera deklaratu baitzen.

Horregatik guztiagatik, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluko s) eta m) letretan ezarritakoarekin bat etorriz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. 2020ko ekainaren 22an berriz ere trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eroldaren zerga kudeaketari ekitea.

Helburu horrekin, berriz ere ekiten zaio TMIZren errolda jendaurrean jartzeko epealdiari, Alkatetzaren 2020/173 Dekretuaren bidez erabakitako etenduraren garaian falta zen denboraz (bost egunez). Hau da, dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo bost egun baliiodunetan, jendaurrean egongo da esandako errolda.

Bigarrena. 8/2020 Errege Lege-dekretua indarrean jarri zen egunetik alarma egoera kendu arte igarotako denbora ez da zenbatuko zergak aplikatzeko prozeduren gehieneko iraunaldiaren aldetik.

Hirugarrena. COVID-19aren ondoriozko alarma egoeraren aldirako erabaki zen administrazio epeen etendurak behartu egiten du, 2020ko ekitaldi honetarako, ondasun higiezinaren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga kobratzeko aldiaren hasiera eta amaiera egunak aldatzera.

Helburu horrekin, zergadunei karga gutxien sortzen dien eran ezarri dira kobrantza aldi berriak, eta beste zerga batzuekin batera ez gertatzeko moduan.

Kobrantza aldi berriak ondoren azaltzen den bezala ezarri dira:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Ordainketa bi alditan zatikatuta:

– Lehenengo aldia: uztailaren 15etik abuztuaren 31ra, biak barne.

– Bigarren aldia: azaroaren 1etik abenduaren 15era, biak barne.

2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

– Irailaren 1etik 30era, biak barne.

Laugarrena. Dekretu hau argitara ematea udalaren web orrian txertatuz, guztiek jakin dezaten.

Bosgarrena. Dekretu hau udalbatzari jakinaraztea, egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Arespalditza, 2020ko ekainaren 19a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA